



ARRIABURU



Arriaburu, Obagoienan kokatua, San Joan baselizaren aldamenean, dugu ibilbide honetako azken geltokia. Egia da ez direla bertara XX mendeko hasierara arte helduko **Atutxatarrak**, baina merezi du behako historiko arin bat etxalde honek.

Etxaldearen izena bera dela eta, derragun XIX mendearen hondarretara arteko agiritan *Arriaburu* azaltzen zaigula; handik aurrera baizik ez dugu *Arriaburu*, batez ere Jabego Erregistroko agiritan. Guk, gure aldetik, *Arriaburu (Arriaga + buru???)* hobetsi dugu.

Bitan bananduko dugu kapitulua: Atutxatarren artekoak eta Atutxatarrak eurak.

7.1. *Atutxatarren arterakoak*

Aurreko kapituluetan ikusi dugunaren antzera, etxalde hau ezagutzeko Fogeraoietara jo beharko dugu. Erabili dugun lehenean, 1704koan (*AH05012/106*), esaten zaigunaren arabera, **Bautista Arriaburu** dugu etxaldeko ugazaba eta, agidanez, bertan bizi da. Fogera osoa ordaintzen du.

Jarraiko Fogeraoian, 1746koan (*BFAAH-AH05013/055*), **Juan Orue** dugu etxaldeko ugazaba; ez da, baina, bera bertan bizi, Juan Bautista Lindutz maizterra baizik. Oraingoan ere, fogera osoa ordaintzen du etxaldeak.

7.1.1. *Simon Bernardo Zamakola eta senitartekoak*

Indusin jaio zen, 1759ko abuztuaren 20an, Simon Bernardo Zamakola, *Zamakola* oinetxean. Bizkaiko pertsonaia gailen hau Maria Diaz Basurto-rekin ezkondu zen 1785-XII-04an.

Simon eta emazte Maria Dimako hainbat etxaldetako jabe izan ziren, *Arriaburu* honetakoa besteak beste, 1796 (*BFAAH-AH05014/009*) eta 1798ko (*BFAAH-AH05016/072*) Fogeraoietan erakusten zaigunez. Datu bitxia da 1796koan “*solo produce diez y ocho ducados*” azaltzen zaigun bitartean, 1798koan fogera osoa ordaintzen duelakoa.

1799ko Lurralde Estatistikan ere (*AH05001/009*) bera ageri zaigu jabe; Antonia Aranburu, haren maizter:

Número 6º

Yo, el dho don **Simón Bernardo de Zamacola**, declaro con igual juramento que tengo por propios míos de esta dha anteiglesia la *CASA de ARRIABURU* con sus pertenecidos, sita en Oba de ella, que me produce y paga la viuda Antonia de Aramburu por renta anual veinte y dos ducados..... 242 rrs

1805eko apirilaren 5eko eskritura batean (*BPAH-HD_54_Asiento 502*), zentsu fidatzaile azaltzen zaigu Simon B. Zamakola, berme bere etxaldeak jartzen dituela, *Arriaburu* euren artean:

En cinco de abril de mil ochocientos y cinco, se otorgó por testimonio del essno don José Anttº de Ycabalceta, essno numeral de esta Merindad de Arratia, escritura de transacción y convenio en esta Anteygª de Dima, entre don Simon Bernardo de Zamacola, en calidad de Albacea y testamentario de Andres de Vernaola Gastañaza, ya difunto, don Manuel de Vernaola Aresmendi y Pedro de Uruchurtu, vecinos de ella, y Juan de Epalza, marido de Sebastiana de Arremolortu



Landaxo, vecinos de la Anteyg^a de Lemona. En su virtud, después de hacer relación del pleito sufrido en el Tral del Sr Theniente Gral de este Señorío de Vizcaia, sobre la validación de la donación y venta de dha Casa otorgadas por el referido Andres, y otras cosas, y hacer largas inserciones, se conformaron en que la referida Casa y casería de Gastañaza con todos sus pertenecidos, que havia sido tasado por el Perito don Francisco de Garai Troxaola en quince mil ochocientos quince rrs y ocho mrs von, a la cual estaban dados los tres aforamientos forales, quedase en toda propiedad y posesión por de dhos Juan de Epalza y su muger, con varias rentas, que hauia producido, durante el pleito, por diferentes cantidades y pensiones: a saber, por mil quinientos quarenta y un reales y tres mrs que entregó de prompto a dho don Manuel de Vernaola Aresmendi; por ochocientos y cincuenta ducados de a once reales von que daban contra dho Epalza y su esposa y a favor de dho Vernaola en el modo que abaxo se contendrá; y por quatro mil setecientos y cinco reales que dentro de quince días de dha fecha havian de pagar el mismo Epalza y su muger a dho Zamacola, sobre lo que se otorgó a favor de estos mismos cesión y traspaso, por todos los demás interesados, de sus dros y acciones. El mismo Epalza, como parte y deudor pral, y dho Zamacola como su insolitado fiador otorgaron en el mismo instrumento censo de los expresados ochocientos y cincuenta ducados de von de capital, y a tres por ciento, ducientos sesenta y nueve reales y medio de renta anual a favor de dho don Manuel de Vernaola Aresmendi, hipotecando el dho pral por sí y dicha su esposa Sebastiana la referida Casa Casería de Gaztañaza con todos sus pertenecidos; y el citado **Zamacola**, como su fiador insolitado, las casas y caserías de Ladajueta, Echeuarria de Barqondia, Basauri y Arriaburu con todos sus pertenecidos, sitas y notorias con ellos en esta misma anteyg^a de Dima, como todo más extenso resulta de la escritura de su razón que en sesenta y un foxas de copia fé haciende se me a exhibido para tomar esta razón. Y lo firmo en Dima, a once de abril de mil ochocientos cinco == Juan Andrés de Madariaga

1810eko Herribaso, ariel, zentsu, kontribuzio eta kredituen berri ematen duen Dimako Udalaren txostenean (BFAAH-AH05009/032), pertsonaia berri bat ageri da, **Tomas Lopez Ipiña**.

Simon Bernardo Zamakola Diman bertan hilko da 1809ko urtarrilaren 23an; Simon eta Maria senar-emazteek ez dute seme-alabarik izan eta orain Tomas hau da bere izeba Mariaren izenean aurkezten dena:

Informe del Ayuntamiento de Dima, dando cuenta del producto anual de los montes comunales, arbitrios, censos, contribuciones y créditos de la anteiglesia.

...

El infraescrito don **Thomas Lopez de Ypiña**, Pbro, Cura Parroco de esta Yglesia de San Pedro Apostol de esta Ant., se presento en nombre de su thia doña María Díaz de Basurto, dueña de las Casas y Caserías que abaxo se expresaran y declara sus rentas en la forma siguiente:

Primeramente, que la *Casa llamada ARRIABURU* produce de renta anual trescientos treinta reales..... 330 rrs

Maria Diaz Basurtok oinordeko izendatu du, nonbait, iloba Tomas hau. Izan ere, 1813ko urriaren 30eko jarraiko agirian azaltzen zaigunez (BPAH-HD_54_Asiento 503), Tomasek bere arreba Teresari emango dio *Arriaburu* etxaldea:

En treinta de octubre de mil ochocientos y trece, don **Thomas Lopez de Ypiña** Presvitero Capellan, Cura parroco de esta Anteig^a de Dima, como heredero de su Sra Tia doña Maria Diaz de Basurto, por testimonio de don Francisco Antonio de Zabala, essno numeral y vecino de ella, hizo donacion de la *Casa y Caseria de Arriaburu* y todos sus pertenecidos radicada con ellos en el Barrio de Oba goiena de esta misma Anteig^a, en favor de su hermana doña **Teresa Lopez de Ypiña**, lejitima consorte del Lizdo don Francisco Antonio de Vriarte y Echevarria, Abogado de los



Rrs Consejos y vezino de esta dha Anteig^a, como costa de su copia fee haciende que para la toma de su razon en el Libro de Hipotecas se me ha exhibido por la parte, y con su remision lo firmo en esta dha Anteyg^a de Dima a dos de noviembre de mil ochocientos y trece, por indisposion de don Juan Andres de Madariaga, Ssrio actual de los Ayuntamientos de la misma. Josef Antonio de Ycabalceta

Aurrerantzean, bada, **Frantzisko Antonio Uriarte Etxebarria** eta emazte **Teresa Lopez Ipiña** izango ditugu *Arriaburu* etxaldeko jabe.

Maria Ines Uriarte Lopez Ipiña, Frantzisko Antonio eta Teresaren alaba eta oinordeko, Durangoko Jabego Erregistrora bideratuko da 1870an, etxaldearen jabetza frogatu nahiean. Aurkeztuko dituen agiriei esker dakigu 1812an jaioa dela, batetik; eta ama Teresa 1862an hil dela, bestetik (*DJE-Dima_259_01*):

Doña María Ynes de Uriarte y López de Ypiña, viuda, propietaria, de cincuenta y ocho años, vecina de la Anteiglesia de Dima, acudió al Señor Juez de Paz de dicha Anteiglesia, don Tomas de Bernaola, por escrito fechado a veinte y cuatro de noviembre del presente año, y firmado por dicha doña María Ynes de Uriarte, solicitando acreditar la posesión en que se halla de la indicada *Casería de Arriburu* y sus pertenecidos, desde el año de mil ochocientos sesenta y dos, que la heredó por fallecimiento de su madre doña Teresa López de Ypiña, a quien perteneció, sin que haya perdido ni por un solo día la posesión, y sin que mediara en su adquisición título escrito.

Maria Ines hau Murgoitio abizeneko norbaitekin ezkonduko da eta hiru alaba izango dituzte: Antonia, Maria Dolores eta Sofia Murgoitio Uriarte. Maria Ines 1891eko ekainaren 9an hilko da.

Maria Inesek 1884ko ekainaren 9an eman duen testamentuaren arabera, hiru alabok izendatu ditu oinordeko:

Doña María Ynés de Uriarte y López de Ypiña, vecina que fue de Dima, adquirió la finca de este número por herencia de su madre doña Teresa, según consta de la inscripción primera que antecede. La misma doña María Ynés de Uriarte falleció el dos de febrero de mil ochocientos noventa y uno, bajo testamento que otorgó el nueve de junio de mil ochocientos ochenta y cuatro ante el Notario de Bilbao don Félix de Uribarria, por el cual la testadora instituye y nombra por única y universal heredera del remanente de sus bienes a sus hijas doña **Antonia**, doña **María Dolores** y doña **Sofía de Murgoitio y Uriarte**, por tercias e iguales partes. En su virtud, doña Antonia de Murgoitio y Uriarte, vecina de Castillo y Elejabeitia, con el objeto de que los bienes dejados por su finada madre se inscriban a su favor y el de sus otras hermanas doña María Dolores y doña Sofía de Murgoitio y Uriarte, por tercias e iguales partes y proindiviso, ha inscrito una solicitud con fecha diecisiete de los corrientes, en la que describe dichos bienes, hallándose entre ellos la finca de este número.

La expresada doña Antonia, doña María Dolores y doña Sofía de Murgoitio y Uriarte inscriben su título de herencia (*DJE-Dima_259_02*)

7.1.2. Pedro Ortuondo eta ondorengoak

Maria Doloresek, hiltzen denean, bere iloba Maria Albizua Murgoitio eta Ramiro Urretxa Murgoitio izendatzen ditu oinordeko; Antoniak, bere seme Ramiro Urretxa Murgoitio; eta Sofiak, bere lau seme-alabak (*DJE-Dima_259_03, 04, 05*). Guzti hauek eta euren oinordekoek,



azkenik, **Pedro Ortuondo Usaolari**¹ salduko dizkiete hainbat etxalde, *Arriaburu* euren artean, Artea-Elexabeitin 1915eko irailaren 20an emandako salmenta-eskritura bitarteko.

Eskritura honetan, salmentaren garaian *Arriaburun* den maizterraren inguruko hiru xehetasun jarriko dira mahai gainean (*DJE-Dima_259_06*):

- 1). Maizterrak txabola eta tailer bat ditu eraikiak propiedadean; Pedrok, bereganatu nahi baditu, berrehun eta ehun peseta, hurrenez hurren, ordaindu beharko dizkio.
- 2). Bereganatu nahi ez baditu, maizterrari eraisten eta materialak eramaten utzi beharko dio. Pedro urte honetako azaroaren batean egingo da etxea eta basoen jabe; lursailena, maizterrak fruituak bereganatzen dituenean, Dimako usadioari jarraiki.
- 3). Dena den, maizterrak urte betean jarraitu nahi badu, egiteko aukera izango du, errenta (salmenta prezioaren ehuneko hirua) Pedrorentzat izango da.

1945ean, berriz, Pedro Ortuondo honek **Dorotea Artaraz Ortuzari** salduko dizkio hiru etxalde, *Arriaburu* hau euren artean.

1982an, azkenik, Dorotea Artaraz eta senar Pedro Iturrate Zuberok euren alaba **Rosario Iturrate Artarazi** emango diote dohaintzan.

7.1.3. Arriaburuko maizterrak

Arriaburun bizi izan diren maizterrei buruzko lehen aipamena 1746ko Fogerazioan egiten dena da. Ikusi dugu 1704koan Bautista Arriaburu jabea bizi dela bertan, baina berrogeita bi urte geroagokoan Juan Orue dugu jabe, maizterra **Juan Bautista Lindutz**, *Lindutz* baserritik etorria zalantzarik gabe.

1799ko Lurralde Estatistikan, jabe eta maizter berriak ageri zaizkigu: Simon Bernardo Zamakola jabe; **Antonia Aranburu** alarguna, maizter.

XIX mende osoan zehar, maizter berriak izango ditugu *Arriaburun*, **Erezkanotarrak**.

Hona 1826ko *Censo de Policía* delakoaren datuak (*BFAAH-AH05067/001*):

| | | <u>Edad</u> | <u>Estado</u> | <u>Profesión</u> | <u>Tiempo Dima</u> |
|------------------|------------------------------|-------------|---------------|------------------|--------------------|
| Arriaburu | Francisco de Erezcano | 46 años | casado | labrador | Todo su tiempo |
| | Francisca de Ybarra | 53 años | id. | Id. | Id. |
| | Josef de Erezcano | 19 años | soltero | Id. | Id. |
| | Fco. Antº de Erezcano | 15 años | id. | | Id. |

Hona, berriz, Dimako eleiz artxiboetan aurkitu ditugunak (*EE_AA_jaiotzak_Dima*):

Erescano Ibarra Francisco Antonio & Ocerin Elorriaga Maria Josefa

- 1.- Erescano Ocerin, Prudencio: 1860-04-28
& Olabarri Artabe Sabina

¹ Pedro hau dimoztarra dugu, Jose Ortuondo Atutxa eta Kasimira Usaola Gainzaren seme, Diman bertan jaioa 1887-02-23an.



(Dima, San Pedro Apostol: 1885-07-27)

Erescano Olabarri, Eusebio: 1886-04-24
 Erescano Olabarri, Juan: 1887-11-25
 Erescano Olabarri, Felipe: 1890-06-06
 Erescano Olabarri, Juan Francisco: 1894-05-24
 Erescano Olabarri, Ramón: 1896-09-13
 Erescano Olabarri, -----: 1898-11-07

2.- Erescano Ocerin, Juan Cruz: 1863-05-04
 & Olabarri Artabe Magdalena
 (Dima, San Pedro Apostol: 1887-11-21)

Erescano Olabarri, Prudencia: 1888-04-28

Hona, azkenik, 1893ko Lur eta Abere-Estatistika (BFAAH-AH05081/013)

| <u>Rentas Ganadería</u> | | <u>Vacuno</u> | <u>Caballar</u> |
|-------------------------------------|-----------------|--------------------------|------------------------------|
| 152. Francisco Antº Erescano | <i>Arriburu</i> | 4 | 2 |
| <u>Rentas de Fincas</u> | | <u>Propietario</u> | <u>Inquilino</u> |
| 164. <i>Arriburu</i> | Caserío | Dolores Murgoitio | Franco. Antº Elescano |

Frantzisko Antonio Erezkano hau 1826ko *Censoan* 15 urte dituen hura dateke, data honetan 82 urtetakoa. Eta Estatistika honen arabera **Dolores Murgoitio** dugu *Arriaburu* etxaldearen ugazabandre; Dolores, Antonia eta Sofia hain zuzen ere.

7.2. Arriaburu etxaldearen deskribapena

Deskribapen hau, liburu osoan gertatu zaigun bezalaxe, etxaldea Durangoko Jabego Erregistroan inskribatu zen garaikoa da; kasu honetan, 1870koa.

Hona baserriaren deskribapena (*DJE-Dima_259_01*):

La *Casería rústica titulada ARRIBURU*, señalada con el número tres, situada en la Cofradía o barriada de la Anteiglesia de Dima, que comprende con su horno y antuzano, ciento diez y ocho estados, equivalentes a cuatrocientos cincuenta metros cincuenta y dos milímetros, componiéndose la Casería de sus correspondientes pisos, cuerdas, divisiones y habitaciones, confinante por Norte, con sus pertenecidos; por Oriente, con terreno de la Ermita de la Cofradía; y por los demás aires con caminos carriles.

Lursailak: **ALDAPEA, TELLERIA-SOLO, OTARRAGA**

Mintegia: **KAUDALATEGIONDO**

Basoak: **AMA / ARRIA (????), URREXOLA, ARRIETA-LANDAIETA, OTAEBAKI**

Las heredades y monte espesados son pertenecidos de la *Casería de Arriburu*, que se llevan bajo su nombre en un heredamiento, radicantes en jurisdicción de la Anteiglesia de Dima, por lo que pueden considerarse como una finca rústica, comprensivo todo ello de tres mil seiscientos treinta y ocho estados, equivalentes a cincuenta mil ochocientos cinco metros y ciento noventa y dos milímetros, o sean cinco hectáreas, ocho áreas y cinco centiáreas de cabida.



Kaudalategiondo mintegia 1915ean bananduko da Kaudalategi etxaldera pasatuz.

7.3. Atutxatarrak Arriaburun

7.3.1. Noiz heldu ziren atutxatarrak Arriaburura?



Komenigarri zaigu aurreko kapitulura itzuli eta *Iturriotz* etxaldeko *Censo de Policía* delakoa berriro aurkeztea:

1826: Censo de Policía delakoa (BFAAH-AH05067/001)

| | <u>Edad</u> | <u>Estado</u> | <u>Profesión</u> | <u>Tiempo en Dima</u> |
|-------------------------------------|-------------|---------------|------------------|-----------------------|
| Iturrioz Antonio de Atucha | 54 años | casado | labrador | Todo su tiempo |
| M ^a Manuela de Amorrortu | 38 años | id. | id. | Id. |
| M ^a Antonia de Atucha | 15 años | soltera | id. | Id. |
| Antonio de Atucha | 13 años | id. | id. | Id. |
| Francisco de Atucha | 11 años | id. | id. | Id. |
| Juan Antonio de Atucha | 8 años | id. | | Id. |
| Martin de Atucha | 5 años | id. | | Id. |
| Antonio de Atucha | 3 años | id. | | Id. |
| Josef de Atucha | 8 días | id. | | Id. |

Juan Antonio da *Iturriotz* jarauntsiko duena. Gainontzeko anaietan, **Felipe Atutxa Iturriotz** da interesatzen zaiguna, honen ondorengoak baitira *Arriaburura* helduko direnak.

1862-03-03: Felipe Atutxa eta Antolina Abasoloren arteko ezkontza (EE_AA_95214)

EITBren emanaldi batean (EITB, 2016), honela diote Felipe Atutxari buruz:

Felipe sale del Caserío *Iturrioz* con una mano delante y una mano detrás, y entonces va a protagonizar una de las pocas aventuras de la familia Atucha. Habéis estado siempre en Oba, siempre en Dima, y de repente Felipe se lía la manta a la cabeza y se va a Igorre. Y en Igorre se va a casar con Antolina Abásolo. Se casan en 1862. Antolina Abásolo, que es de Dima, por supuesto. Y rápidamente van a volver a Oba. En 1865 ya los tenemos en el Caserío Arriburu...

Gure ustez, zalantzatan jarri beharrekoa da azken baieztapen hau.



Egia da Felipe Atutxa eta Antolina Abasoloren seme-alabak Diman jaiok direla; zaharrena, Estanislao Atutxa Abasolo, esaterako, 1864an jaioa da.

Hainbat datu ditugu, haatik, baieztapenaren aurkakoak izan daitezkeenak, gure ustez:

1.) Igorreko 1877ko Errolda. *Loiate* auzunean, hona zer aurkitzen dugun (BFAAH-IGORRE_0018_001):

| | | | |
|-------|--|--------------------------------|-----------------------------|
| 17. 1 | Felipe Atucha y Arriortua (<i>sic</i>) | 50, casado | vecino, 3 años en Igorre |
| 2 | Antolina Abasolo y Barrenechea | 40, esposa | domiciliada, 13 años en id. |
| 3 | Estanislao Atucha y Abasolo | 13, hijo | domiciliado, 03 años en id. |
| 4 | Justo Atucha y Abasolo | 11, id. | domiciliado, 03 años en id. |
| 5 | Asensio Atucha y Abasolo | 06, id. | domiciliado, 03 años en id. |
| 18. 1 | Santiago Abasolo y Arriortua | 74, viudo | vecino, 51 años en Igorre |
| 2 | Ramón Abasolo y Ascuenaga | 40 ² , casado, hijo | vecino, 40 años en id. |
| 3 | Teresa Erescano y Subero | 32, casada, nuera | domiciliada, 7 años en id. |
| 4 | Saturnina Abasolo y Erescano | 05, solt., nieta | domiciliada, 5 años en id. |

Datuon arabera, Felipe, Antolina, Estanislao, Justo eta Asensio Diman jaiok dira. Haatik, 1875an, hiru urte daramatzate Igorren, Dimatik 1872an jaitsiak???

2.) Justo Atutxa eta Tomasa Totorikaren arteko ezkontza-kapitulazioak, 1889-08-10ekoak. Justoren datuak: ezkongai, noski; hogeita bost urtekoa, baserritarra, Diman jaioa, eta **Igorren bizi dena**.

... comparecen Don **Justo Atucha Abasolo**, de estado soltero, de edad de veinticinco años, labrador, natural de la Anteiglesia de Dima y residente en esta de Yurre, hijo legitimo de don Felipe y doña Antolina...

3.) Ikusi dugu, 1893ko 1893ko Lur eta Abere-Estatistikan (BFAAH-AH05081/013), **Arriaburun, Frantzisko Antonio Erezkano** bat dugula, mende osoan zehar maizter izan direnen ondorengo.

| <u>Rentas Ganadería</u> | | <u>Vacuno</u> | <u>Caballar</u> |
|---|-----------------|---------------|-----------------|
| 152. Franciso Ant^o Erescano | <i>Arriburu</i> | 4 | 2 |

4.) Aurreko Estadistika berean, *Iturriotz* etxaldea dela eta, hona datorkiguna:

| <u>Rentas Ganadería</u> | | <u>Vacuno</u> | <u>Caballar</u> |
|--------------------------|-----------------|---------------|-----------------|
| 153. Justo Atucha | <i>Yturrios</i> | 2 | - |
| 154. Luis Atucha | <i>id.</i> | 5 | - |

| <u>Rentas de Fincas</u> | | <u>Propietario</u> | <u>Inquilino</u> |
|-------------------------|---------|--------------------|---------------------|
| 165. <i>Iturrios</i> | Caserío | Luis Atucha | Justo Atucha |
| 166. <i>Id.</i> | Caserío | <i>Id.</i> | Luis Atucha |

Lur eta Abere Estadistika honetan esaten zaiguna da bi *Iturriotz* baserri daudela, biak **Luis Ramon Atutxa Iturriotz Linazarenak**. Bata da Antonio Atutxa Iturriotzek 1830ean berreraiki zuena eta bestea, Antonioren seme Juan Antonio Atutxa Iturriotzek 1850ean eraiki zuen berria.

² EE_AA_Igorre_jaiotzak: Ramon Abasolo Ascuenaga, 1835-07-19. Ematen du, beraz, bi urteren alde dagoela Erroldaren data -1877- eta egin zen urtearen artean, 1875???



Suposatu behar dugu Luis eta bere sendia *Iturriotz* nagusian bizi direla, 1830ekoan; Justo eta bere sendia, *Iturriotz Txikian*, berrian.

4.) Ikusi berri dugu, aurreraxeago, *Arriaburu* Pedro Ortuondo Usaola batek erosten duela 1915ean. Salmentaren baldintzetan, maizterra aipatzen da behin baino gehiagotan, eta beste urte batean jarraitzeko duen eskubideaz.

5.) Lekuko baten testigantza³:

Aititek kontaukoa da 1918ko gripean, bera gaixorik dauela, aitek lepoan bajatu ebala *Arriburure*, **baserritik aldatzean**. Ez dakit nondik, baina bajatu egin ebala.

Osabaren⁴ ETBko programan esaten zen betidanik Arriburukoak zirela, baina niri ori kontatu eustan.

6.) Beste testigantza bat⁵:

Niretzat bersio hori barria da⁶. Antzeko bat bai inoz kontatzen eban aitek: Ikazgintzan ebiltzala gure aititegaz bera eta bere anaia Seberino, lo egiten ebela txondorren alboan egindako txabolatxo baten; eta baten gripeak jota egoala, eta bere aitek, gure aititek, arrekokola ekarri ebala etxera. Niretzat eta baita nire anai Jesusentzat, Antonino *Arriburun* jaio zan.

Laburbilduz, bada, ematen du 1893an *Iturriotzen* Justo Atutxa bat dugula maizter; *Arriaburun*, Erezkano bat.

Felipe Atutxa 1881ean hil da eta ziur gaude *Iturriotz*eko Justo hura **Justo Atutxa Abasolo** dela, Feliperen bigarren semea, garai honetan hogeita hamar bat urte izan ditzakeena.

Eta, itxura guztien arabera, ematen du lekukoak aipatzen duen baserri aldatze hura *Iturriotzetik* eta *Arriabururakoa* izan daitekeela.

Gure ustez, bada, ez ziren Feliperen seme-alabak 1918 ingurura arte helduko *Arriaburura*.

Beste kontu bat da noiz heldu ziren *Iturriotz*era, zenbat denbora egin zuten bertan eta zenbatetan ibili ziren Obatik eta Igorrera eta Igorretik eta Obara.

7.3.2. Felipe Atutxa eta Antonina Abasoloren semeak

Felipe eta Antoninak hiru seme izan zituzten: Estanislao, 1864an jaioa; Justo, 1865 aldera jaioa, eta Asensio, 1867 aldera jaioa, hirurak, ustez, Diman.

Esan dugu Felipe 1881ean hil zela; Antonina, 1894an.

Estanislao Atutxa Abasolo, seme zaharrena, Arantzazuko Regina Rekagorriekin ezkonduko da, Arantzazuko San Pedro elizan, 1889-05-04an. Lau seme izango dituzte, Feliziano, Frantzisko, Jazinto eta Jose, lauak hala lauak eta euren ondorengoak Igorren jaioak.

Kontu bera dakigu hirugarren semeari buruz; hau **Asensio Atutxa Abasolo** dugu, Konzepzion Gorostiagarekin ezkonduko dena. Hauen seme Gillermo eta ondorengoak ere Igorren jaioak ditugu.

³ Oskar Gorostiaga Atutxa da lekukoa, Maria Angeles Atutxa Mendiolaren seme. Maria Angeles hau Antonino Atutxa eta Maxima Mendiolaren alaba dugu. Eta Antonino, Justo Atutxa Abasoloren seme. Oskar Gorostiagaren aitite, beraz, Antonino; eta honen aita **Justo Atutxa Abasolo**.

⁴ Osaba hori Juan Mari Atutxa Mendiola dugu.

⁵ Juan Mari Atutxa Mendiolarena, hain justu, da testigantza hau.

⁶ Loba Oskarren kontatu duena.



7.3.3. Justo Atutxa Abasolo

Justo Atutxa Abasolo hau bigarren semea dugu.

Bitartean, Igorren, **Tomasa Totorika Barrenetxea** jaio zaigu, 1863-12-22an.

Justo hau Tomasa honekin ezkonduko zaigu, Igorren bertan, 1889-08-31n.

1889-08-10: Justo Atutxa eta Tomasa Totorikaren arteko ezkontza-kapitulazioak

Oso datu interesgarriak aurkituko ditugu ezkontza-kapitulazio hauetan (**1 Gehigarria**).

1.) Justo Atutxa Abasoloren datuak: ezkongai, noski; hogeita bost urtekoa, baserritarra, Diman jaioa, eta Igorren bizi dena.

... comparecen Don **Justo Atutxa Abasolo**, de estado soltero, de edad de veinticinco años, labrador, natural de la Anteiglesia de Dima y residente en esta de Yurre, hijo legitimo de don Felipe y doña Antolina...

2.) Ama Antolina ere, alarguna dagoeneko, berrogeita hamar urtetik gorakoa, baserritarra, Igorreko herritarra.

Beraz, Diman jaioa bada Justo Atutxa Abasolo, noizbait itzuli dira Dimatik Igorrera, ezkontzaren data honetan Igorren bertaratua baitago.

7.3.3.1. Justo eta Tomasaren seme-alabak

Justo Atutxak eta Tomasa Totorikak zazpi seme-alaba izan zituzten: Manuel, Eufemia, Seberiano, Justo, Antonino, Rufina eta Maria Santa.

Manuel, zaharrena, Igorren jaio zen 1889-11-20an. 1915ean, Diman, bertako Tomasa Ingunza Sagarnarekin ezkonduko da eta zortzi seme-alaba izango dituzte: Kasiano, Justo, Higinio, Antolin, Kristina, Jose, Pedro eta Marina Atutxa Ingunza.

Bigarren ondorengoa Eufemia dugu, Diman jaioa 1891-09-16an. Ematen du gazterik hil zela, aitaren testamentuan ez baita aipatzen.

Izan daigun kontuan, bestetik, Diman jaioa dela; urte honetarako, bada, ematen du Justo eta Tomasa bertan bizi direla, *Iturriotzen* ziurrenik.

Seberiano dugu hirugarren ondorengoa; hau izango da *Arriaburun* kokatuko dena.

Justo da laugarrena, 1896-04-29an jaioa, Diman. Justo hau Dominga Basterretxea Beobiderekkin ezkonduko da, Diman, 1934-10-19an. Justo eta Dominga Arantzazuko *Usabelera* etorriko dira maizter eta han izango dituzte Milagros, Justo eta Juanita seme-alabak. 1950-60ko hamarkadan, *Zelaia* etxea eraiki zuten herrian eta hara jaitsi ziren.

Bosgarrena Antonino edo/eta Antolino dugu, 1899-05-10ean jaioa, Diman. Antonino *Zuberoko* Maxima Mendiola Etxebarriarekin ezkondu zen 1930-03-01an, bien artean Areatzan erosi zuten *Larragan* baserrira. Han jaioak dira euren seme-alaba Jose Mari, Jesus, Maria Angeles eta Juan Mari Atutxa Mendiola.

Rufina, seigarren ondorengoa eta 1904-07-29an jaioa, Angel Gorospe Bernaolarekin ezkondu zen Diman, 1924-11-15ean eta sei seme-alaba izan zituzten: Susana, Margari, Julian, Antonina, Maria Lourdes eta Alejandro.



Zazpigarrena, azkenik, Maria Santa dugu, 1908-05-27an jaioa. M. Santa Julian Mendiola Lekuerekin ezkondu zen eta zortzi seme-alaba izan zituzten: Pedro, Eujenia, Jeronima, Maria Pilar, Jose Luis, Nikolasa, Jabier eta Maria Jose.

1939-10-25: Justo Atutxa Abasoloren testamentua

Durangon emana, Juan Ignazio Aldamiz-Gojeaskoa Erezuma Notarioarenean (*3 Gehigarria*).

Bere seme Seberianoren aldeko dohaintza egiten du:

CUARTA. Que al contraer matrimonio su hijo Severiano con doña Juana Uriarte e Iza, en Amorebieta, ante el notario don Luis Zubiaga el diez y seis de enero de mil novecientos veintinueve hicieron la escritura de capitulaciones, en cuya escritura el compareciente y su esposa le hicieron donación de la mitad de muebles y ganados existentes en la casería, a condición de vivir en sociedad familiar, y la mitad también de los aperos y útiles de labranza y ajuar de casa.

QUINTA. Lega a su citado hijo Severiano cuanto le pertenece en la sociedad familiar de la otra mitad que se reservaron los donantes, siempre que hasta su defunción siga viviendo el donante con el citado hijo Severiano, imponiéndole además la obligación, como hemos dicho antes, de sufragar los gastos de entierro, funerales del testador y misas por las almas del donante y de su esposa...

7.3.4. Seberiano Atutxa Totorika

Dagoeneko ezaguna dugunez, **Seberiano Atutxa Totorika** da Justo eta Tomasaren hirugarren ondorengoa, *Arriaburun* dituzten ondasunen oinordeko izendatuko dutena.

1929-01-16: Seberiano Atutxa eta Juana Uriarteren arteko ezkontza-hitzarmena

Zornotzan emana, Luis Zubiaga Arana Notarioaren aurrean (*2 Gehigarria*).

Justo Atutxa Abasolo eta Tomasa Totorika Barrenetxea eta euren seme **Seberiano Atutxa Totorika**, batetik; Jazinto Uriarte Akesolo alarguna eta alaba **Juana Uriarte Itza**, bestetik.

7.3.4.1. Seme-alabak

Seberiano Atutxa eta Juana Uriarte Diman ezkondu ziren 1929-02-04an. Ezkontza horren fruitu dira Tomasa, Jesus, Klaudio, Dominga, Dominga, Inaxio, Bitori, Justo eta Eulalio.

1987an, Bitori eta Eulaliok *Arriaburu* etxaldea erosten diete Rosario Iturrate eta senar Jesus Ikuzari.



Genealogiak

1. Felipe ATUTXA AMORRORTU (*Iturriotzekoa*) (1825) (+1881)

& Antonina ABASOLO BARRENECHEA (1835) (+1894)

(*Igorre, Andra Mari: 1862-III-03*)

1.1. Estanislao ATUTXA ABASOLO (1862-V-06, Dima) & Regina REKAGORRI LAZKANO (Arantzazu, 1863) (*Arantzazu, San Pedro: 1889-V-04*)

1.1.1. Feliziano ATUTXA REKAGORRI (1890, Igorre) & Eulogia LINAZA AYESTA (1892, Bedia)

Kristobal ATUTXA LINAZA (1918, Igorre)
Estanislao ATUTXA LINAZA (1919, Igorre)
Juana ATUTXA LINAZA (1922, Igorre)
Jazinto ATUTXA LINAZA (1925, Igorre)
Frantzisko ATUTXA LINAZA (1930, Igorre)

1.1.2. Frantzisko ATUTXA REKAGORRI (1896, Igorre) & Juliana ETXEBARRIA AMORRORTU (1894, Igorre)

Maria ATUTXA ETXEBARRIA (1925, Igorre)
Emilia ATUTXA ETXEBARRIA (1925, Igorre)
Simon ATUTXA ETXEBARRIA (1925, Igorre)
Frantzisko ATUTXA ETXEBARRIA (1925, Igorre)

1.1.3. Jazinto ATUTXA REKAGORRI (1902, Igorre) & Simona ETXEBARRIA AMORRORTU (1905, Igorre)

Teresa ATUTXA ETXEBARRIA (1931, Igorre)
Julian ATUTXA ETXEBARRIA (1934, Igorre)

1.1.4. Jose ATUTXA REKAGORRI (1902, Igorre) & Maria ZARANDONA AGIRRE (1904, Larrabetzu)

Juan Jose ATUTXA ZARANDONA (1932, Igorre)
Feliziano ATUTXA ZARANDONA (1933, Igorre)
Ignazio ATUTXA ZARANDONA (1936, Igorre)

1.2. Justo ATUTXA ABASOLO (1864) (+1946-VI-03)

1.3. Asensio ATUTXA ABASOLO (1869) & María Concepción GOROSTIAGA BARRENA

1.3.1. Guillermo ATUTXA GOROSTIAGA (1898, Igorre) & Frantziska OZERIN GORRITXO (1906, Lemoa)



Guillermo ATUTXA OZERIN (1927, Igorre)
